

## **Federico Arribillaga (Arribillaga I)**

Etxalarren jaio zen, 1953ko irailaren 5an Etxalarko Iñarreta auzoko Joanaberria izeneko etxean. Palako modalitatean, historiako jokalaria onenetakoa izan zen, 2. hoberena Manolo Iturriren ondotik eta baita azkeneko *palista* klasikoa. Pertsona oso maitatua zen pala munduan eta “Palako kapitain handia” bezala ezaguna zen ere. Pilotari bezala bere kolpearen potentziagatik nabarmentzen zen. Aspalditik Getxo bizi zen. 56 urte zituela Bilbon hil egin zen.

Bere pilota ibilbidea Irungo Kurpil eskola hasi zuen eskuz baina segituan palazko modalitatara pasa zen. 1972. urtean gazteen mailako txapelketa izan zen eta Espainako gazteen mailako txapelketa ere Zampirain lagun zuela. Urte berean profesional bezala debuta egin zuen Deportivon (Abuztua 11) Ibarregaray lagun zuela, Zalacain eta Pumarejoren aurka. 45-38 irabazi zieten. 1974. urtean, Miguel Saralegui zena lagunduta, Muguiroko ezkerria bezala ezaguna, “torneo de Ases” txapelketa irabazi zuen. Bere ibilbide profesionala 1996. urte arte luzatu zen, konkretuki martxoaren 23a arte. Egun hartan Torrekin batera 40-33 irabazi zuen Urkia eta Oterori Deportivo frontoian. Denetara 24 urte eman zituen pilotari bezala. Urte guzti hauetan, Deportivon, Carmelo Baldan eta Euskal Jai frontoian, lehia ederrak eduki zituen Manolo Iturriekin. Daniel eta Juan Pablo Logroñoko anaiak, bat atzelaria eta bestea aurrelaria, Fede handiaren aurkariak izan ziren ere. Aipatutakoez aparte bertze aurkari handiak izan zituen, hauexek aipagarrienak; Juan Pablo García, Insausti, Ipiña, Iturzaeta y Utge “pibea” frontoiko aurreko koadrotan eta atzekoetan berriz Claudio Beitia, Goldaracena eta Saralegui.

Bere garaipenik aipagarrienak bere anaiarekin (Arribillaga) batera irabazitako Espainiako txapelketa 1981. urtean, Euskadi txapelketa, Udaberriko irekia, Bilbo Hiria txapelketa eta Azpeitiako Hiria txapelketa izan ziren.

*Daniel García 'Daniel' errioxarrak honako hitz hauekin definitu zuen Federico Arribillaga*

«Pala modalitateko azkenetako izarra izan zen. Aurrelari indartsua, eskuin bikainarekin eta beti estilo klasikoa mantendu zuena»

*Pertsona aparta zen, erlazio ederra eduki genuen. Frontoi garaietan ematen zituen aholkuak eta laguntzaz oroitzen ditut. Inoiz ez zuen keinu itsusirik izan. Pilotari bezala, bere eskuinaz aparte, bere kokapena, lehen urteetako sakea eta batez ere sake ondoko bigarren pilotaka nabarmen nuke. Liluragarria!*